

2017ko ABENDUAREN 26ko UDAL OSOKO EZ OHIKO BILKURA

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2017ko abenduaren 26an, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Miren Amaia Askasibar Agirre
- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez

Ez da/dira batzarreratu

- Maite Bizkarrondo Arzallus

Bertan aurkitzen da bilera honetarako 2017/1327 Foru Agindu bitartez Elduaingo Udalaren idazkaria izateko gaitu den Iñaki Sainz Paredes Toki Administrazioako Gaitasuna duen Herri Langilea eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.

Hain zuzen aipatu Foru Arauak ebazten du: Iñaki Sainz Paredesi ematea Elduaingo Osoko Bilkurak 2017ko abenduaren 26an egin beharreko bileran idazkari lanak egiteko mandatua.

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 19:30 ordu direnean, bilkura irekitzat eman eta gaitzerrendako puntuen azterketari ekiten zaio.

GAIEN ZERRENDA:

KONTROLEKO ZATIA:

- AURREKO AKTA AGIRIEN ONARPENA
- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA
- ERREGU ETA GALDERAK

ALDERDI ERABAKITZAILEA

1.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEA ETA BERE DOKUMENTU GEHIGARRIAK BEHIN BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO IRIZPENA

KONTROLEKO ZATIA:

- AURREKO AKTA AGIRIEN ONARPENA

Osoko bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten.

- 2017/09/26ko Udalbatzarra, 2017ko irailaren 26koa ohikoa.
- 2017/11/07ko Udalbatzarra, 2017ko azaroaren 7koa ez ohikoa.

Oharririk aurkeztu ez direnez, idatzita dauden eraberean ahobatez onartzen dira.-

- ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42. artikuluan adierazten duen ondorioetarako, Batzarrari, ohiko azken bileraz gero, Alkatetzak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio. Hain zuzen ere 2017/060tik 2017/067 dekretura doazenak, biak barne, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

2017/060	Iraileko Ohiko Osoko Bilkura
2017/061	GLLEskaera MLB
2017/062	GLLEskaera MZO
2017/063	Garaikoetxe. Obra baimena
2017/064	Espedientearen kopia JMDE
2017/065	Azaroko Ezohiko Osoko Bilkura
2017/066	TKT hitzarmena
2017/067	Zentralitaren Kontratu Berria
2017/068	GLLEskaera MZO
2017/069	GLLEskaera MLB

- ERREGU ETA GALDERAK

Ez ziren aurkeztu halakorik.

ALDERDI ERABAKITZAILEA

1.- 2018KO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEA ETA BERE DOKUMENTU GEHIGARRIAK BEHIN BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEKO IRIZPENA

Udalaren berezko 2018ko aurrekontua, 374.210 €koa, aurkeztu da.

Bestalde espedientearen gainontzeko dokumentu eta agiri gehigarrien berri ematen da, lantalde eta lanpostu zerrenda, aurrekontuaren exekuziorako udal araua, transferentzi arrunten eranskina, zorpetze eranskina, inbertsioen eranskina eta abar barne. Hasierako aurrekontu honek ez dauka defizitarik.

Ondoren Alkateak bozketa egitea agindu du eta gertatutako emaitza hau izan da:

- Alde bozkatu dute, bertan dauden EH Bilduko 4 zinegotziek

Bozketaren emaitzaren argitara, ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena ematea udalaren 2018 ekitaldiko aurrekontu espedienteari eta dokumentu gehigarriei.

BIGARRENA.- Berariaz izapidetutako espedientea hamabost lanegunez erakustea jendaurrean; betiere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikulua eta haren ondorengo aldaketek araututakoari jarraituz. Jendaurreko erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren web orrian eta udaletxeko iragarki oholean plazaratutako iragarki bidez gauzatuko da. Informazio-epe hori igaro ondoren, erreklamaziorik edo oharpenik egingo ez balitz, behin betiko onartutzat joko da espedientea eta bere dokumentu gehigarriak eta aurkeztuko balira berriz, horien gain beren bedegi erabakia hartu eta Udalbatzarrak behin betiko onartu beharko ditu.

Eta, 20.15 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2017ko abenduaren 26a.

O.e.
Alkateak

Gaitutako Idazkariak

Jose Angel Urkizu Odriozola